

## 3/13 IRIZPENA

**Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntzei buruzko Dekretuari buruzkoa**

**Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an.**

### I. AURREKARIAK

2013ko maiatzaren 8an Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren idazkia jaso genuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntzei buruzko Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zigun Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Dekretu-proiektuaren helburua EAEko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapena eta berrikuntza suspertzeko eta sustatzeko diru-laguntzen (Berriker programa) araudia ezartzea eta arautzea da.

Agiriaren kopia bat igorri zitzaion berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei euren proposamenak eta iritzia adieraz zitzaizen eta ondoren horiek Lan-batzorde egokiari helarazi ahal izateko, hala agintzen baitu Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendurako Araudiak. 2013ko maiatzaren 22an Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri hartuta, honako Irizpen-proiektua egin zen Batzordeak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Aho batez onetsi zuten.

### II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuari buruzko testuak Zioen Azalpen bat, zazpi Kapitulumen banatutako 51 Artikulu, Xedapen Iragankor bat, Xedapen Indargabetzaile Bakarra eta bi Azken Xedapen ditu.

#### Zioen Azalpena

Aipatzen denez, ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+b) sustatzea EB osoari interesatzen zaion xede garrantzitsua da. 2002an Bartzelonan egin zen Europako Kontseiluaz geroztik I+G+b arloan Batasunak egiten duen gastu orokorra areagotzea adostu zen. I+G+b arloari estatuek emandako diru-laguntzen bidez eraginkortasun ekonomikoa areagotzea eta horrela hazkunde iraunkorrari eta enpleguari laguntzea, horixe da helburua.

Eronka horri erantzute aldera, Europako Batzordeak beharrezkotzat jo zuen I+G+b arlorako estatuko diru-laguntzen inguruan indarrean den araudia modernizatzea eta hobetzea 2006/12/30eko EBAOn argitaratutako "Ikerketarako, Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu diru-laguntzei buruzko Batasuneko Esparrua" (2006/c 323/01) onartuta. Testu

horren helburua Estatu Kideei arlo horretako estatu diru-laguntzak emateko beharrezko jarraibideak ematea zen, merkatuan egon zitezkeen balizko hutsak zuzenduta eta arlo horren inguruan arautzen eta ematen diren laguntzek lehia faltsutzen ez dutela eta merkatu komunarekin bateragarriak direla bermatuta.

Batasuneko Esparruaren ondotik *Hitzarmenaren 87 eta 88 artikulua aplikatuta merkatu komunarekin bateragarriak diren diru-laguntza kategoria jakin batzuk ematen dituen 800/2008 Araudia* argitaratu zen.

Bestalde, Euskadiko Landa Garapen Iraunkorrerako 2007-2013 Programak (Batzordearen C(2008) 704 Erabakiaren bidez onetsi zen 2008ko otsailaren 15ean) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsekin (FEADER) bidez landa-garapenera laguntzeari buruzko irailaren 20ko Kontseiluaren (CE) 1698/2005 Araudia aplikatzea dakar, eta 124. neurrian "Produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzak-proiektuak" garatzeko laguntza jasotzen du. Laguntza horren helburua nekazaritza, elikadura eta basogintza sektoreetan produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzea sustatzea da, baina beti ere lehen sektorearekin eta eraldaketa- eta merkaturatze-industriarekin lankidetzan.

Jarraian aipatzen da enpresei ematen zaizkien I+G+b diru-laguntzak direla I+G+b Arola garatzeko tresnarik garrantzitsuenak, ez bakarrik epe laburrean erantzunak emateko, baizik eta enpresa-esparruko ekimenak bultzatzeko eta ikerketa-zentroekiko lankidetzak errazteko, azken horrek azpi-sektore ezberdinek ikerketa-ekintzak garatzea sustatzen baitu.

Ondoren, beste hainbat kontu aipatzen dira: "Ikerketarako, Garapenerako eta Berrikuntzarako Estatu Diru-laguntzei buruzko Batasuneko Esparru" (2006/C 323/01) berriaren bidez EBk bultzada eta protagonismo berria ematen dizkio I+G+b arloari; I+G+b arloaren inguruko helburuak bat datoz nekazaritza, elikadura eta arrantza arloetako I+G+b arloan eskuduna den Sailaren xedeekin; erreforma egin behar da Estatuak I+G+b arloari ematen dizkion diru-laguntzak bultzatzeko, eta aldaketa hori batasuneko Esparru berriaren ezarritako jarraibideetara egokitu beharko da estatuko laguntza horiek merkatu komunarekin bateragarriak izan daitezen, eta Hitzarmenaren 87 eta 88 artikuluei jarraiki merkatu komunarekin bateragarriak diren laguntza-kategoria jakin batzuk ezartzen dituen 800/2008 (CE) Araudira ere egokitu beharko da; eta Euskadiko Landa Garapenerako 2007-2013 Programan ezarritakoa 124. neurriari dagokionean garatzeak ezinbesteko egiten du nekazaritza, elikadura eta arrantza sailerako ikerketa, garapena eta berrikuntza suspertzerak eta sustatzerak bideratutako diru-laguntzen araubidea ezartzen eta arautzen duen honako arau hau hartzea.

Azalpena amaitzeko, aipatzen du orain arte bi arau zeudela, bakoitzak bere laguntza-sistema zeukala: itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak eta itzultzeko moduko aurrerapenak. Nekazaritza, elikadura eta arrantza arloko I+G+b arloan eskuduna den Sailak egoera aztertu du eta balizko onuradunen onerako bi arauak bakar batean batzea erabaki du egokiagoa eta argiagoa delakoan, izan ere, helburua bakarra da diru-laguntza mota ezberdina izan arren. Gainera, itzultzeko moduko aurrerapenei dagokien diru-laguntza zero interesa duten maileguengatik ordezkatu da.

## Xedapenak

**I. kapitulua. Zati Orokorra** kapituluan Dekretuaren xedea eta helburua ezartzen dira: EAEko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapena eta berrikuntza suspertzeko eta sustatzeko diru-laguntzen (Berriker programa) araudia ezartzea eta arautzea, hain zuzen.

2. artikuluan zenbait definizio jasotzen dira. Hain zuzen, honako kontzeptuak definitzen dira: Nekazaritzari eta Elikadurari loturikoa zer den, Zentro Teknologikoak, Ikerketa-zentroak, Garapen esperimentalak, Krisian diren enpresak, diru-laguntzaren baliokide gordina, Bideragarritasun teknikoaren azterlanak, Berrikuntza, Antolakuntza-arloko berrikuntza, Prozesuen arloko berrikuntza, Diru-laguntzaren intentsitatea, Funtsezko ikerketa, Industria-ikerketa, Ikerketa-erakundea, Arrantzari loturikoa zer den, produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzak-proiektuak, Diru-itzultzeak eta Atzeratzeak.

3. artikuluan laguntza-mota biak definitzen dira: itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak eta zero interesdun maileguak; 4. artikuluan diru-laguntza ezberdinak ezartzen dira; 5. artikuluan onuradunak zeintzuk diren azaltzen da; 6. artikulua kontratazioari buruzkoa da; 7. artikulua, finantzaketari buruzkoa; 8. artikulua baldintzei buruzkoa; 9.a eskabideei eta dokumentazioari buruzkoa; 10. artikulua epeari eta deialdiari buruzkoa da; 11.a irizpide objektiboei buruzkoa; 12. artikulua diru-laguntzen kudeaketari buruzkoa da eta Balorazio Batzordeen zeregina aipatzen du; 13. artikulua esleipen-prozedura eta laguntzen kuantifikazioa jasotzen ditu; 14. artikulua deialdiaren ebazpenari buruzkoa da; 15.a onuradunen obligazioei buruzkoa da; 16. artikulua gehienezko burutzapen-epetari buruzkoa da; 18. artikulua ordaintzei eta bermeei buruzkoa da; 19.a diru-laguntzaren baldintzak aldatzeari eta inbertsioaren burutzapena atzeratzeari buruzkoa da; 19. artikulua atzera eta

uko egiteari buruz hitz egiten du; 21. artikulua ez betetzei buruzkoa da; 22.a bateragarritasunei buruzkoa eta 23. artikulua, aldiz, diru-laguntzen izapideak elektronikoki egiteari buruzkoa da.

Ondoren II, III, IV, V, VI eta VII Kapituluak (24-51 artikulua) aurkezten dira:

**II. kapitulua. Funtsezko ikerketa, industria-ikerketa eta garapen esperimental proiektuetarako diru-laguntzak.**

**III. kapitulua. I+G+b proiektuei loturiko Bideragarritasun Teknikoaren Azterlanetarako laguntzak.**

**IV. kapitulua. Enpresa gazte eta berritzaileentzako edo/eta oinarri teknologikodun enpresa berrientzako laguntzak.**

**V. kapitulua. Zerbitzuetarako jardueren antolamendu arloan berrikuntza-proiektuak egiteko laguntzak.**

**VI. kapitulua. Prozesuen arloan berrikuntza-proiektuak egiteko laguntzak.**

**VII. kapitulua. Produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzaren proiektuetarako laguntzak.**

Kapitulu bakoitza lau artikulutan banatzen da: diru-laguntzaren xedea eta diruz lagundu daitezkeen kostuak; 8. artikuluan jasotako baldintza orokorrean gain diru-laguntzak jaso nahi dituzten pertsonen eta erakundeek bete beharreko berariazko baldintzak; aurkeztu beharreko berariazko dokumentazioa; eta diru-laguntzen zenbatekoa.

**Xedapen iragankorra** abian diren prozedurei buruzkoa da.

**Xedapen indargabetzaile Bakarrak** honako Dekretu eta Aginduak indargabetzen ditu: EAEko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreen ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa sustatzeko azaroaren 23ko 230/2004 Dekretua (Ikerketa programa); nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreen ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzei buruzko uztailaren 27ko 218/2010 Dekretua; EAEko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreen ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa sustatzeko Dekretua "Ikerketarako, Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu diru-laguntzei buruzko Batasuneko Esparrua (2006/c 323/01)" araudira egokitzen duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura arloko sailburuaren 2007ko uztailaren 16ko Agindua; eta dekretu honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dauden lerrun bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Lehenengo Azken Xedapenak** Dekretu honetan xedatutakoa aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko ahalmena ematen dio, beti ere bere eskumenen barruan, nekazaritza, elikadura eta arrantza alorreko I+G+b arloan eskuduna den Saileko titularrari.

**Bigarren Azken Xedapena** Dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

## III.- GOGOETAK

### III.1 GOGOETA OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntzei buruzko Dekretu-proiektua baloratzeko eskatu digute. Dekretu horren xedea, bere lehen artikuluan ezartzen denez, "Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza suspertzerara eta sustatzera bideratutako araudi bat ezartzea eta arautzea" da.

Arau horren inguruan, gogoeta orokor bi adierazi nahi ditugu:

#### 1. ARAUAREN JUSTIFIKAZIOARI DAGOKIONEAN

- Lehenik eta behin, Zioen azalpenak honakoa aipatzen du: "Ikerketarako, Garapenerako eta Berrikuntzarako Estatu Diru-laguntzei buruzko Batasuneko Esparru" (2006/C 323/01) berriaren bidez Europar Batasunak bultzada eta protagonismo berria ematen dizkio I+G+b arloari; I+G+b arloaren inguruko helburuak bat datoz nekazaritza, elikadura

*eta arrantza arloetako I+G+b arloan eskuduna den Sailaren xedeekin; erreforma egin behar da Estatuak I+G+b arloari ematen dizkion diru-laguntzak bultzatzeko, eta aldaketa hori batasuneko Esparru berrian ezarritako jarraibideetara egokitu beharko da estatuko laguntza horiek merkatu komunarekin bateragarriak izan daitezen, eta Hitzarmenaren (Kategorien araberako salbuespen-araudi orokorra) (2008.8.9ko L214 EBAO) 87 eta 88 artikuluei jarraiki merkatu komunarekin bateragarriak diren laguntza-kategoria jakin batzuk ezartzen dituen 800/2008 (CE) Araudira ere egokitu beharko da; eta Euskadiko Landa Garapenerako 2007-2013 Programan ezarritakoa garatu egin behar da 124. neurriari dagokionean”.*

Ados gaude justifikazio horrekin, eta modu positiboan baloratzen dugu ekimen horrek eskaintzen duen aukera. Hala ere, zalantzan gaude Euskadiko Landa Garapenerako 2007-2013 Programa aipatzea egokia ote den, izan ere, Dekretua ziurrenik ez da indarrean sartuko 2013ko bigarren seihilekoa baino lehen, eta Programa hori 2013an bertan amaitzen da.

- Bestalde, aipatzen da egokiago eta argiago irizten zaiola prisma ezberdinetatik eta laguntza-sistema ezberdinen bidez ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzen eta suspertzen duten bi arau<sup>1</sup>, bateratzeari.

Gure ustetan, prozesuak argitzeko xedea bidezko argumentua da, baina modu zehatzagoan justifikatu beharko litzateke kasu honetan ekarriko lukeen onura. “Estrategikoki egokiagoa” dela jartzen du, baina ez dugu justifikazio egokirik aurkitu, bestelako legegintza-ekimenetan ere gertatzen den bezalaxe.

Hitz batez, egoki deritzogu Dekretu-proiektuaren Zioen Azalpenean landutako gaiak berrantolatzeari, baina hori justifikatzen duten argumentuak modu egokiagoan garatu behar dira.

## 2. ARAUTUTAKO EDUKIEI DAGOKIENEAN

- Gure ustetan, Dekretu honek nekazaritza, elikagai eta arrantza sektoreen I+G+b arloa sustatzeko eta suspertzeko laguntzen araubidea arautzen duen esparru orokorra eskaini beharko luke, araubide horren oinarriko gaiak modu objektiboan garatu beharko litzuzke eta ondoren izango duen garapena balorazio-irizpide, haztapen eta antzeko agindu materialen bidez eskuordetu beharko luke.

Uste dugu dekretu batek ez lukeela horren arauketa sakona egin beharko, arautzeko moduko gaiak definitzeaz gain aldakuntzak edo/eta eguneraketak sarri antzean zehaztuta.

- Eta kontu zehatzak azpimarratzen hasita, objektibotasun falta sumatu dugu diru-laguntzen zenbatekoak arautzerakoan (27.2, 31.2, 35.2, 39.2 eta 51.2 artikulua), izan ere, finantzatu beharreko proiektuen zerrenda, adibidez, baloraziorik onena lortu duen proiektuak jasotako puntuazioa oinarri hartuta ezarri da, baina ez da inon jasotzen aurkeztutako proiektuek izan beharreko gutxieneko puntuazioa zein den (baina gutxieneko puntuazio hori bai ezartzen da diru-laguntzei buruzko 13.3 artikuluan, VI. kapituluaren<sup>2</sup>).

Gure proposamena honakoa da: gutxieneko absolutu bat finkatzea proiektu batek izan beharreko gutxieneko merezimenduak kontuan hartuta eta baloraziorik onena lortu duen proiektuari esleitzen zaion balioa alde batera utzita, horrela aipatutako artikuluetan jasotzen diren puntuen eskalak sinplifikatuta.

<sup>1</sup> Hau da, EAEko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreen ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa babesten dituen azaroaren 23ko 230/2004 Dekretua eta nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreen ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako laguntzei buruzko uztailaren 27ko 218/2010 Dekretua.

<sup>2</sup> Ezarritako eskalaren arabera, baloraziorik onena jasotzen duen proiektuak 70 puntu lortuko balitu, esaterako, soilik 5 puntu (edo 0) jasotzen dituen proiektuak eskatutako diru-laguntzaren % 30 edo % 58 lortuko luke, horretarako funts nahikorik egonez gero. Gainera, 11. artikuluan ezarritako irizpideak erabiliz gero, 160 puntu dira gehienez lor daitezkeenak. Demagun proiektu batek ere ez duela gehienezko kalifikazio hori lortzen: 80 puntu baino gehiagoko aldea izanez gero, ez litzateke puntuazio horren % 50 betekoa.

## **III.2 BERARIAZKO GOGOETAK**

### **Zioen Azalpena**

- Lehenik eta behin, gomendagarria da 1. paragrafoan Europako 2020 Estrategiari eta % 3ko I+G gastuaren inguruan Bartzelonako xedearen berrespenari buruzko aipamenen bat egitea. Adibidez:

**Halaber, Europako 2020 Estrategiak xedatzen duenez, I+G inbertsioaren maila bultzatu beharko litzateke BPGren % 3koa izatea lortzeko.**

- Bigarrenik, gogoeta orokorretan adierazitakoa berretsita, deigarri suertatzen zaigu Euskadiko Landa Garapenerako 2007-2013 Programa aipatzea erreferentzia-esparru gisa, kontuan hartu behar baita laster amaituko dela haren indarraldia.
- Azkenik, 7. paragrafoan indarrean diren bi arau daudela esaten da, baina ez da zeintzuk diren aipatzen. Kontuan hartuta Dekretu-proiektuak berariaz indargabetzen dituela, uste dugu Zioen Azalpenean sartu beharko liratekeela adierazpen moduan baino ez bada ere: ***Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreen ikerketa, garapena eta berrikuntza teknologikoa babesten dituen azaroaren 23ko 230/2004 Dekretua (Ikerketa Programa) eta nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreen ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako laguntzei buruzko uztailaren 27ko 218/2010 Dekretua.***

### **1. artikulua. Xedea eta helburua**

2. atalean honakoa gehitzeko gomendatzen dugu:

**2. Arau honek arautzen dituen ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako diru-laguntzen helburua eraginkortasuna areagotzea eta lehiakortasuna hobetzea da...**

Izan ere, aldatzeko proposatu dugun artikulua hori uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren 12. artikulua bezalaxe idatzita dago, hitzez hitz. Gainera, kontuan hartuta xedapen bi testu bakarrean bateratzen direla, uste dugu haratago joan beharko lukeela, nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreek ekonomia globalizatuak planteatzen dituen erroka berriei (hala nola, kalitatea hobetuz lehiakorrago izateko beharra) egin behar baitiete aurre. Horrexegatik uste dugu ekintza berriok sartu behar direla.

### **8. artikulua. Baldintzak**

4. atalean honakoa gehitzea gomendatzen dugu:

**4. Proiektuak ingurumen-arloari eta higiene- zein osasun-baldintzei dagozkien arauak eta kasuan kasuko inbertsioei aplikatu dakizkiekeen batasuneko arauak bete ditzala, eta baita arau horietan animalien ongizateari eta garraioari buruz ezartzen den araudia ere.**

Azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuan (3.2.b artikulua) jasota dagoenez egoki deritzogu esapide hori mantentzeari, batez ere 2012an Europako Batzordeak Hogeita Zazpitan animalien ongizatea hobetzeko arauak aplikatu ondoren lortutako emaitzak eskasak direla onartu zuela kontuan hartuta (herrialdeek arau horiek bete ditzaten errazteko estrategia berria proposatu zuen).

2012 eta 2015 bitartean aplikatuko den plan berri horrek ez ditu lege berriak planteatzen, aitzitik, "egun dagoen araudia finkatzea eta sinplifikatzea", horixe da planteatzen duena. 1998an, abeltzaintza-ustiapenetako animalien babesari buruzko Kontseiluaren 98/58/CE Zuzentarauak elikagaiak, artilea edo larrua ekoizteko zein bestelako nekazaritza-erabileretarako mantentzen diren espezie guztietako animaliak (arrainak, narrastiak eta anfibioak barne) babesteko arau orokorrak ekarri zituen, eta baita horiek garatzeko hainbat Zuzentzari ere.

Uste dugu bidezkoa dela puntu hori sartzeari etorkizunean arazoak ekiditeko. Izan ere, txerriak adibide hartuta, animalia horiek babesteko gutxieneko arauak (2013ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo dira indarrean) txerriak berriztatzea behartuko dute, eta Batzordeak adierazi zuen ezingo dela luzapenik egin.

## **12. artikulua. Diru-laguntzen kudeaketa**

5. atalean aipatzen du Balorazio Batzorde bakoitzak bere egitekoak izango dituela. C letradun atalak honakoa dio, hain zuzen: *"Balizko onuradunen zerrenda ordenatua egitea, bakoitzak lortu duen puntuazioa adierazita. Horretarako diru-laguntzak baloratzeko urtez urteko deialdi-aginduetan ezarritako irizpide objektiboak aplikatuko dira, irizpideok baloratu eta haztatu egingo dira, eta behar bezala justifikatuko da aplikazio eta haztaperen hori"*.

Gure ustetan, kontuan hartu beharreko irizpideak deialdi bakoitzean aukeratzen badira (10.i artikulua) eta, gainera, ondoren deialdiaren ebazpenean haztutzen badira, 11. artikuluan irizpide objektiboak esleitutako puntuak ez dute inolako aplikaziorik. Gainera, 13.2 artikulua arabera, balorazio hori aldatu egin daiteke deialdi deialdi (*"urtez urte deialdi-aginduan finkatzen diren irizpide objektiboak eta horien balorazioa aplikatuko zaizkie"*).

Horrenbestez, balio horiek ez dute inolako garrantzirik, beraz, kentzea proposatzen dugu.

## **13. artikulua. Diru-laguntzak esleitzeko eta kuantifikatzeko prozedura**

Dekretu-proiektuaren 1. atalaren arabera, diru-laguntzak lehiaketa bidez esleitzen dira funtsak agortu arte.

Badakigu erredundantea eman dezakeela, laguntza-ildo guztietan aipatzen baita, baina uste dugu komenigarria dela lehiaketaren prozedura zertan datzan modu generikoan azaltzea. Horrenbestez, uste dugu 1. atal horretan honakoa gaineratu behar dela:

**1.- Dekretu honetan araututako diru-laguntzak esleitzeko erabiliko den prozedura lehiaketa da: *aurkeztutako eskabideak elkarrekin alderatuko dira artikulua honetan alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera horien arteko lehentasun-hurrenkera ezarri ahal izateko.***

## **14. artikulua. Deialdiaren ebazpena**

- Lehenik eta behin, aipatu beharra dago atalen zenbakikuntza zuzendu egin behar dela.
- 18. orrialdeko 3. atalean (ez 17. orrialdekoan) jarraian azpimarratuta ageri dena kentzea proposatzen dugu, pentsaezina baita deialdi bat berariaz ebatzi gabe gera daitekeenik. Horrenbestez, testu zati hori kentzea proposatzen dugu.

**3. Ebazpena gehienez sei hilabeteko epean emango eta jakinaraziko da dekretu honetako 10. artikulua aipatzen duen Agindua indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. ~~Epe hori igaro ondoren berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek euren eskabideak gaitzetsi direla ulertu ahalko dute~~ Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44. artikuluan xedatutakoari jarraiki.**

## **15. artikulua. Deialdiaren ebazpena**

3. atala lehenengo jartzea proposatzen dugu.

## **24. artikulua (28. izan beharko luke). Diru-laguntzaren xedea eta diruz laguntzeko moduko kostuak**

24. artikulua (III. kapituluak. I+G+b proiektuei loturiko Bideragarritasun Teknikoaren Azterlanetarako laguntzak ataleko lehenengo) zenbakia zuzentzea, ez baita 24, 28 baizik.

**Forma-gomendioak:**

a) Artikuluetan (6, 9 eta 10. artikulua, besteak beste) **“eskuduna”** izapidearen ordez **“eskudun Sail edo erakundea”** erabiltzea, juridikoki egokiagoa dela uste baitugu.

b) Sarritan agertzen da **“nekazaritza, elikagai eta arrantza sektoreak”** esapidea. Dekretua arindu eta haren ulermena errazte aldera, **“araututako sektorea”** edo antzeko esapideren bat erabiltzea gomendatzen dugu.

#### IV.- ONDORIOAK


*“Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako diru-laguntzei buruzko Proiektu-dekretuari”* dagokionean, Euskadiko EGABek ez du uste arauketa-ekimen hori egokia denik, ez behintzat aurkeztu zaigun moduan.

Horrenbestez, komenigarria litzateke berriz aztertzea Irizpen honetan adierazitako baldintzak kontuan hartuta.

Bilbon, 2013ko maiatzaren 29an



OE Presidentea  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos